

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gu Ander, Ilian, Maialen eta Paula gara, Urretxu eta Zumarragako ikastolako 1.batxilergoko ikasleak, eta Startinnovako proiektua gauza dugu. Gaur egun, lana lortzea nahiko zaila dela oso nabarmena da, batez ere zailtasunen bat duten pertsonentzat edo bilatzen den prototipoaren barruan sartzen ez direnentzat. Jende askok lan baten beharra du, izan ere, ezinbestekoa da bizimodu duin bat izateko, gainera, zailtasunak dituzten pertsonak beraien bizi kalitatea hobetzeko dirua behar dute. Beharrezkoa iruditu zaigu ETT moduko enpresa mota bat sortzea pertsonak modu errazago batean lana lortu ahal izateko urte osoan zehar. Gure enpresak ez du inor baztertuko, hau da, ez dugu estereotiporik onartuko; adibidez, zailtasunak dituzten pertsonak modu berean kontuan hartuko ditugu, ez diogu inori lehentasunik emango. Gainera, gure zerbitzua webgune baten bidez eskainiko dugu, eta aurre ikusten dugu agentzia bat irekiko dugula hiriren batean pertsona gehiagori gure zerbitzua eskaintzeko.

Guztiok dugu lan baten beharra bizi ahal izateko, eta gaur egun jende asko langabezian dabil eta arazo larri bat iruditzen zaigu. Lan bat lortzeko aukerak geroz eta urriagoak dira. Horregatik iruditu zitzaigun lanpostuak eskaintzen dituen enpresa bat sortzeak pertsona askori lagunduko ziola.

Askotan atera izan dira telebistan langabeziari buruzko datu estatistikoak, haiei esker ikus dezakegu gaur egungo egoera nahiko kaskarra dela. Egoera hau, batez ere, ikasten dagoen jendean ikusten da, pertsona gazteetan esate baterako. Enpresa honek lana bilatzen lagunduko du jendea lan bat eskainiz, horrela bakoitzak lan egin nahi duen esparruan murgilduko da.

Hedabideetan gaur egun lana lortzeko dauden zailtasunak garbi ikusten dira, adibidez, emakume bat haurdun gelditzeko ideia badu, diskriminatua izaten da, izan ere, kontratatzeko momentuan kontuan hartu duten zerbait da.

